

ERASMUS+ beka jaso duzuen lagun agurgarriok:

Europako Batzordeak informatika tresna bat ezarri du ERASMUS+ programa kudeatzeko. Guk Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan kudeatu behar dugu, eta tresna horren bidez egin behar ditugu eskatutako txosten guztiak. Horretarako, ERASMUS+ bekak jaso dituzten guztien datuak jasotzen ari gara.

Tresna horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei, mugikortasun aldia amaitu ondoren. Hori egingo da, bulego honek jasotako **certificate of attendance** delakoaren datak sartu eta, era berean, bulegoak data horiek tresnan sartu ondoren.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatzen dizugu, mesedez, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoko bat jasoko duzue "IKASLE" helbidean, REPIES-WILL-BE-DISCARDED@EC.EUROPA.EU helbidetik (letra xehez), inkesta bete dezazuen. *Spam* karpetara irits daiteke.

De: replies-will-be-discarded@ec.europa.eu

Asunto: Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /

Inkesta **DERRIGOR** bete behar da eta Europako Batzordeak inposatu du eta azaldu digunaren arabera, bete ezean, jasotako laguntza itzultzeko eska daiteke, eta ERASMUS+ mugikortasunaren aitortpena gal daiteke.

Jasotzen duzuen mezuan esteka bat emango zaizue, inkestara sartu eta betetzeko, eta 30 egun naturaleko epean igortzeko, mezua jaso duzuenetik aurrera zenbatzen hasita.